

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Ekintza

# Denok gara artistak!

- |   |   |  |
|---|---|--|
| <p><b>Helburuak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Artea erabiltzea jasangarritasuna kultura zabaltzeko</li> <li>• Ikastetxeko jolastokia girotzea</li> <li>• Ikasleak inplikatzeko ikastetxeko egunerokoan</li> </ul> | <p><b>Landutako konpetentziak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-komunikazioa</li> <li>• Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabiltzea</li> <li>• Giza eta arte-kultura</li> <li>• Norberaren autonomia eta ekimena.</li> </ul> | <p><b>Materialak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arbela</li> <li>• Horma-irudi bat egiteko materialak</li> </ul> |
|---|---|--|



## Garapena

Urte asko dira ikastetxeko jolastokiko hormetako marrazkiak berritzen ez direla eta horregatik zuzendaritza taldeak ikasturte honetarako pentsatu du badela garaia gai honi ekiteko. Baina ez daki ondo nola egin eta, horregatik, ikasleekin elkarlanean jolastokiko horma baten diseinua pentsatzea eta erabakitakoa aurrera eramatea erabaki du. Hori bai, horma-irudiaren gaia eskola jasangarria izango da.



Lehenengo eta behin, guztion artean eskola jasangarri batek zein ezaugarri bete beharko lituzkeen eta zeintzuk eskola ez jasangarri batek zerrendatu behar izango dute:

ESKOLA JASANGARRIA	ESKOLA EZ JASANGARRIA

Ondoren ikasleak talde txikitik banatuko dira eta eskola jasangarri batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak kontuan izanda, hurrengo fitxa osatu beharko dute:

### Ikastetxeko horma-irudiaren proposamena: 'Eskola jasangarria'

<b>Taldearen izena</b>	
<b>Horma-irudiaren mezua (olerkia, bertsoa, slogan)</b>	
<b>Irudiaren zirriborroa</b>	

Behin proposamen guztiak jasota, parte hartze prozesu bat martxan jarriko da ikastetxeko komunitate osoaren iritzia ezagutu eta gustukoena erabakitzeko. Bozketan egiteko sarean ugari dauden plataforma digital bat erabili daiteke jende gehiagorengana iristeko.

Iniziatibak arrakasta handia izatekotan eta proposamen ugari eta onak aurkeztekotan, hasiera batean pentsatutako horma marrazteaz gain, beste gune batzuetara ere zabaldu daiteke, adibidez?